

# Ezkongabeak bikote bila

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*



*Bikotea aurkitzeko makina bat modu daude gaur egun. Eta sekuentzia honetan ikusiko dugun moduan, horietako zenbait oso bitxiak dira. Gai hau abiapuntu hartuta, ondorengo ariketa hauek egingo dituzu.*

## 1- Bikotea topatzeko hamaika bide

*Bikotea topatzeko moduei buruz duzun iritzia emateko aukera izango duzu. Binaka, erantzun galdera honi, eta ondoren taldean komentatu.*

**1. Hauetatik zein dira gaur bikotea aurkitzeko gehien erabiltzen diren moduak, zure ustez? Behean aipatzen ez den besteren bat ezagutzen duzu?**

- Egunkarian edo interneten iragarkia jartzea.
- Dantzaleku edo taberna batera joatea.
- Harreman berriak egiteko antolatua dagoen telebistako saio batera joatea.
- Harreman-agentzia batera joatea.



## 2- Bikoteak topatzeko merkatuak?

*Txinan bikoteak topatzeko modu bitxi bati buruzko audioa entzungo duzu. Entzun ondoren, lotu beheko esaldi-hasierak dagozkien amaierekin.*

LEHEN ATALA	AMAIERA
Txinan ez dago ondo ikusita...	... beste gurasoekin iritziak konpartitzen dituzte.
Txinako gurasoen kezka handia izaten da...	... mutilzahar edo neskazahar gelditzea.
Txinako gaztetxoan artean oso zabalduta daude...	... gurasoak elkartzen dira bere seme-alabei bikotea topatzeko.
Shangaiko herriko parkean...	... emakumeek ez dute senarraren soldataren beharrik.
Ezkongabeak harremanetan jarri baino lehen...	... ligatzeko aplikazioak eta sare sozialak.
Ohiturak aldatzen ari direnez,...	... beraien seme-alabak ezkondu ahal izatea.

## 3- Neskazaharrak eta mutilzaharrak

*Audioko aurkezleak zioen **mutilzahar** edo **neskazaharrei** ez zaiela estimu handirik. Hitz horiek tradizionalki eta oraindik orain asko erabiltzen dira, eta normalean mespretxuzko zentzuan erabili ohi ditugu.*

### Zer esan nahi dute?


**NESKAZAHAR:** Gaztaroa igaro eta ezkondu gabe dagoen emakumea (Gutxiespen edo mespretxu balioa dauka).

**MUTILZAHAR:** Gaztaroa igaro eta ezkongabea den gizona (hau ere mespretxu kutsuarekin erabiltzen da)

**NESKAZAHARTU/ MUTILZAHARTU:** Neskazahar edo mutilzahar bihurtu, gaztaroa igaro eta ezkondu gabe gelditu.

Ikus adibideak:

- . Zure seme hori oraindik neskalagunik gabe al dago? Martxa honetan mutilzahar geldituko da.
- . Nire alabak garaiz ezkondu nahi zuen, baina konturatzerako neskazahartu egin da.
- . Mutilzahartzen ari zenez galdetu nion ea zergatik ez zuen ezkondu nahi.



## 4- Lexikoa: nola adierazi beste modu batera?


### BIKOTEAK TOPATZEKO MERKATUAK

Txinan, antza denez, oso gaizki ikusia dago ezkondu gabe egotea. Mutilzahar edo neskazaharrei ez zaie **estimuz** \_\_\_\_\_ handirik. Gurasoen kezka handienetakoa izaten da seme-alabak ezkontzea. Horregatik, senar edo emaztea topatzeko merkatuek arrakasta handia dute bikotea topatzeko toki **apartak** \_\_\_\_\_ baitira.

Txinan teknologia berriak, sare sozialak eta ligatzeko aplikazioak gaztetxoek artean oso zabaldua daude. Baina, bikotea topatzeko merkatuak **puri-purian** \_\_\_\_\_ daude gaur gaurkoz. Shangaiko herriko parkean astebururo jendetza biltzen da **ezkongabeen** \_\_\_\_\_ iragarki eta argazkiei begiratua ematera. Gurasoak joaten dira seme-alabentzako bikote bila. **Tradizio** \_\_\_\_\_ handiko ohitura da Txinan eta gurasoei ez zaie batere axola ordu luzez aritzea seme-alabentzako bikote **aproposaren** \_\_\_\_\_ bila. Beste gurasoekin iritziak **konpartitu** \_\_\_\_\_ eta euren seme-alabak bikote egiteko aukerak ikusten badituzte, orduan bakarrik jartzen dituzte gaztetxoak harremanetan. Ikusten denez, familiak zeresan handia dauka bikotearen aukeraketan.

## Aukerak

- |               |             |           |
|---------------|-------------|-----------|
| (1)           | (4)         |           |
| estimazio     | ezkongaien  |           |
| balorazio     | ezkontideen |           |
| iritzi        | ezkonduen   |           |
| (2)           | (5)         |           |
| arruntak      | garrantzi   |           |
| ezin hobeak   | balorazio   |           |
| bereziak      | usadio      |           |
| (3)           | (6)         | (7)       |
| bizi-bizi     | hobearen    | banatu    |
| modan         | ederraren   | baloratu  |
| puntu-puntuan | egokiaren   | partekatu |



## 5- Bikotea topatzeko bide proposak

Beheko taulan bikotea topatzeko hainbat modu daude. Binaka, sailkatu taulan dituzten abantailak eta desabantailak. Ondoren, alderatu bikote bakoitzaren erantzunak eta adostu zein den bikotea topatzeko modurik egokiena.

**OHARRA:** Zerrendaz aparte nahi dituzun abantaila eta desabantailak jar ditzakezu.

BIKOTEA EZAGUTZEKO MODUA				
Harreman-agentzia batean izen ematea.				
Interneten edo egunkarian iragarki bat jartzea				
Dantzaleku edo taberna batera joatea				
Festa bat antolatzea (lankideekin, ikaskideekin .... )				
...				

### ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

- Zure neurriko pertsona aurkitzeko aukera onak eskaintzen ditu.
- Zailagoa da ezezkoa jasotzea.
- Gezurrak esateko arrisku handiegia dago.
- Gustuko izan zenuen pertsonarekin topo egiteko aukera ematen du.
- Bide hori hotzegia da harreman berria egiteko.
- Pertsona bat ondo ezagutzeko aukera ona da.
- Harreman serioa sortzeko aukera gehiago ematen ditu.

## Bikoteak topatzeko merkatuak?

### LEHEN ATALA

Txinan ez dago ondo ikusita  
Txinako gurasoen kezka handia izaten da  
Txinako gaztetxoan artean oso zabaldua daude  
Shangaiko herriko parkean  
Ezkongabeak harremanetan jarri baino lehen Ohiturak  
aldatzen ari direnez,

### AMAIERA

mutilzahar edo neskazahar gelditzea.  
beraien seme-alabak ezkondu ahal izatea.  
ligatzeko aplikazioak eta sare sozialak.  
gurasoak elkartzen dira bere seme-alabei bikotea topatzeko.  
beste gurasoekin iritziak konpartitzen dituzte.  
emakumeek ez dute senarraren soldataren beharrik.

## Lexikoa: nola adierazi beste modu batera?

### BIKOTEAK TOPATZEKO MERKATUAK

Txinan, antza denez, oso gaizki ikusia dago ezkondu gabe egotea. Mutilzahar edo neskazaharrei ez zaie **estimuz** (estimazio) handirik. Gurasoen kezka handienetakoa izaten da seme-alabak ezkontzea. Horregatik, senar edo emaztea topatzeko merkatuek arrakasta handia dute bikotea topatzeko toki **apartak** (ezin hobeak) baitira.

Txinan teknologia berriak, sare sozialak eta ligatzeko aplikazioak gaztetxoan artean oso zabaldua daude. Baina, bikotea topatzeko merkatuak **puri-purian** (modan) daude gaur gaurkoz. Shangaiko herriko parkean astebururo jendetza biltzen da **ezkongabeen** (ezkongaien) iragarki eta argazkiei begiratu ematera. Gurasoak joaten dira seme-alabentzako bikote bila. **Tradizio** (usadio) handiko ohitura da Txinan eta gurasoei ez zaie batere axola ordu luzez aritzea seme-alabentzako bikote **aproposaren** (egokiaren) bila. Beste gurasoekin iritziak **konpartitu** (partekatu) eta euren seme-alabak bikote egiteko aukerak ikusten badituzte, orduan bakarrik jartzen dituzte gaztetxoak harremanetan.

Ikusten denez, familiak zeresan handia dauka bikotearen aukeraketan.